

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

ALDAKETARAKO GOBERNUA

Parlamentuko jaun-andreok: azaletik azaldu dizuedan akordio programatikoa ikusita, irrigarri ere geratzen da Nafarroan abiarazi den aldaketa zehaztugabetzat, lausotzat edo ezgaitzat kalifikatu nahi duena.

Aitzitik, esan diezadakezue, edukia badut ere, nola eta norik aurrera eraman faltako lirakeela.

Aldaketarako proiektu batek horren neurrirako gobernu-eredua behar du, eta proiektu hori gauzatzeko gaitasuna duen pertsona-taldea ere bai. Bada, planteatu dudak Gobernuaren xehatuko dizuet, ondoren.

Lehenbiziko helburua da gai eta politika sozialei garrantzirik handiena ematea, zehaztu dudak bezala, benetako premiak baitira gure erkidegoan: enplegua eta bazterkeria. Horregatik, Gizarte Eskubideen lehendakariordetza sortuko dugu, gizarte-politikak, enplegua eta etxebizitza bilduko dituenak.

Horrekin paraleloan, lehendakariordetza ekonomikoa sortuko da, garapen ekonomikoari zein fiskalitateari eta Hitzarmenaren tresnari dagozkionak bilduko dituenak.

Lehendakariordetza biak izango dira aldaketaren funtsezko motorra, eta harreman eta lankidetzak estuan jardungo dira. Kontuan izan behar dugu gastua kontrolatzen duen administrazio bat eraman behar dugula aurrera, gure gizartean benetan behar dituen inbertsioei lehentasuna eman ahal izateko, hain zuzen ere.

Gainerako sailak akordio programatikoa zentzua ematen dioten blokeetara egokitzen dira, akordioa ahalik eta modurik eraginkorrenean burutzeko.

Azkenik, akordio on bat nahiz gobernu-eredu on bat ez lirakeke aldaketa hezuramaitzeko nahikoak izango, haien ibilbidearengatik eta ezagutzengatik kontseilari izateko erantzukizuna beren gain hartzeko ezin hobeak diren pertsonak ez bagenu. Benetan sinesten dut hurrengo Gobernuaren parte izango diren ibilbideak aise irakurritako —gutxieneko objektibotasun bat eduki nahi bada—, ikusten dela kasu guztietan kargua hartzeko gaitasun nabarmena dutela.

Eremu publikoan zerbitzua eman duenaren umiltasunetik, orain Nafarroaren aldaketari

zentzua ematen dion anbizio handiko programa hau aurrera eramateko gai garela erakustea baino ez zaigu geratzen.

Zuzentzea espero dudana Gobernuak —saio honetan zuen konfiantza lortzen badut— ez ditu ezinikusiak eta mendekua ulertzen. Izan ere, herritarrek denboran zehar biziraun nahi duen zentzuzko aldaketa bat eskatu digute eta aldaketa horrek ez ditu ezinikusiak eta mendekua ulertzen ere. Parte-hartzailea eta guztiontzako da, nahiz eta askok akatsak egin ditzagun amets egiten duten... haiek egin dituzten akats berdinak, alegia.

Agian, subkontzienteak huts egiten die edo guztiok haien modukoak garela uste dute; baina lasai egon daitezke, iraganeko egindako kudeaketak uzten dien heinean behintzat.

Zuen denbora berria oposizioaren lan duina egitera dedika ezazue, gai zareten indar guztiarekin: horixe da nafarrek eman dizueten funtzioa. Eta zuen aisian, zuen etxea eta Nafarroarentzat duzuen etorkizun-proiektua ordenatzen saia zaitezte.